

Itziar Antiguada

Haritik tira eta brodatzeari eutsi

Urrian ezker abertzalearen itzal handiko zenbait lagunak kontra izandako sarekada haren ostean mugimenduak azkartu egin dira. Azalekoak eta, seguruena, barrukoak ere, burujabetzaren esparruan diharduten eragile asko eta askotarikoak astindu baitzituen gertaera hark. Geroago izan diren bidarren artean daude Altsasuko adierazpena, *Zutik Euskal Herria* ebazpena edota norbanako independentisten sarea. Litekeena da gogoeta honek argia ikusi aurretik berri-rik ere izatea.

Mugimenduok urtetako mataza askatzen hasia den seinale hartzeko motiboa badago oraingoan, behar zen haritik tiraka hasi delako. Hainbestetan aipatu den bide-orria abian da, zorioneko estrategia eraginkorra helbide; ziklo berria behingoz. Puntu eta bereiz, ez puntu eta jarrai, oraina bada eta geroa izango bada neurri inportante batean iragane-koa izan delako bada ere.

Ziklo berriak, eraginkorra izango bada, bide eta bidaide berriak eskatzen ditu. Indarrak metatzearen beharra ez dator eragile batzuek aspaldi jasaten duten apartheid egoeratik, egoera politikoa behingoz blokeotik askatzeko eragile askoren behar gaurkotutik baizik. Izan ere, hurbileko geroan Euskal Herriko politika piramide baten inguruan gauzatuko bide da, unionistak, jeltkideak eta ezkerreko subiranistak erpin banan direla. Piramide lar ximplea izan daiteke hori, ados, baina goiko politikari begira ezinbestekoa da denbora baterako, marko demokratikoa gauzatu arteko denbora, behintzat. Eta goiko politikan eragina izatea beharrezkoa da, nahikoa ez bada ere, lekuan leku eta egunean egun egin beharreko eraldaketak egiten laguntzeko. Bidaide berriak, beraz; Euskal Herria subjektu hartzen dutenekin helbideak konpromisoez adostuta, ezkerreko sub-



DANI BLANCO

ranisten erpina indartze aldera. Helbide berriak, beraz; bide demokratikoak, bai, presio dinamikari ekiteko, herri aktibazioa elikatzeke, Europako sentsibilitate batzuk astintzeko...

Beharrezkoak diren borroka moldeak badoaz euren lekua hartzen bide-orrian: masarena, ideologikoa, instituzionala. Ideologikoa da funtsezkoa, logika batean berak elikatzen baititu besteak; are gehiago hauteskundearen eremuan, nola edo hala, sartu beharra denean. Ideiak, eta ez baka-riak nagusiak, garbi, Herri hau burujabetzara ezkerreko erreitik eramateko, politika azpiko sektore guztietan; krisi egoeratik sozialismo identitario berrituaren bidetik ateratzeko. Hortaz, ezker abertzalearen barneko eztabaidak oso elementu balio-itsuak ekarri dizkio ibilbide berriari; trantsizioak onartu beharra, kasuko. Prozesu demokratikoa mailaz mailakoa irudikatu

da, negoziazioaren ingurukoa bera ere, orain gutxira arte ordulariaren kontra egin nahi zena tarteko helmugak dituen ibilbide bezala aurkeztuta. Pragmatismoa ote? Beharbada bai, baina eraginkorra, eraldatzailea eta biderkatzailea egitea da erronka.

Zalantzak? Altxa beza eskua ez duenak. Nik neureak gure erpinean. Ezker abertzalearen eztabaidatik nagusi atera den *mandatua* horko sektore guztiek beteko ote duten; Irlanda gogoan honetan ere. Norbanakoez osatutako eta alderdiez eratutako esferen arteko hartu-emanen ingurukoa. Alderdien aliantzako jardunbidean sakontze

ideologikoak izango duen pisua. Ezker abertzaleak legeko gorputz politiko propioa. Hauteskundearen erronka. Galdera gehiago erantzunak baino. Baina lehen nituen funtsezko galderekin badute orain erantzun egokia, niretzat behintzat. Hasi zaio matazari haritik tiraka; brodatzen hasteko garaia da, zalantzak zalantza. ■

Zalantzak? Altxa beza eskua ez duenak. Nik neureak gure erpinean. Ezker abertzalearen eztabaidatik nagusi atera den *mandatua* horko sektore guztiek beteko ote duten; Irlanda gogoan honetan ere. Norbanakoez osatutako eta alderdiez eratutako esferen arteko hartu-emanen ingurukoa. Alderdien aliantzako jardunbidean sakontze ideologikoak izango duen pisua